

8. Felix Zubiaga Legarreta: *Arketipoak eta euskararen jatorria*



Felix 1932an Errigoitin jaioa da eta Filosofia eta Erromanikar Letretan Lizenziatua da Deustuko Unibersitatean, *Unamuno y las lenguas peninsulares* (1973) tesiarekin. Unibertsitate bereko Doktorautza Ikasketak egina da (1996-1998) *Vascuence y mitoanálisis*.

Euskarari eman dizkio bere maisutzako urterik gehienak Lauaxeta Ikastolan eta ipuin, antzerki, elaberri eta poesia lanak egin eta batzuk argitaratu ere egin ditu: *Errosarioren kuzkuak*, *Agora*, (Donostia Saria), *Kalean andre*, (Bizkaiko Aldundiko Saria) eta elaberrigintzarako beka batzuk ere lortu ditu. Olerkigintzan, *Zure argi kliskak* (Arrese Beitia Saria, 1986) eta *Oi Emmanue!* (Lizardi Saria 1991).

Azken urteotan euskararen ikerketan ekiten dio Eleiker Bildumaren inguru *Vascuence y mitoanálisis* jarraipenean, metodologiaz etxeko etnografia, toponimia eta euskara bera Antzinako Sortalde Hurbileko mitografiarekin gonbaratzen dituela.

Ondorengo liburu hauek argitaratu ditu proiektu honen barruan: *Vascuence y mitoanálisis / Euskararen ereduak / Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan / Euskal mito-erritoak eta euskara / Apellidos y nobleza / La onomástica, oído de la prehistoria o el vascoeuropeísmo / Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence./ Antiguo Testamento del vascuence / Euskararen jakinduria / Euskara mito bizia / Origen y desarrollo del lenguaje (según el vascuence) / Zuzentza eta eskubidea euskararen oroitzan / Euskara bere baitan (psikoaztertuz) / Vascuence, inconsciente colectivo / Antigua religión de los vascos / Origen del vascuence / Gizakia hirutasun irudia / Vascoeuropeismo versus indoeuropeismo.*

Harremanetarako: [fzubiaga\[abildua\]orue.biz](mailto:fzubiaga[abildua]orue.biz)



1. Hasierakoak

1.1. Arketipoak eta hizkuntza

Arketipo hitzak *eredu zaharra* eta, ahozko hizkuntzan, *jatorrizko hotsa/kontsonantea* esan nahi du, hots hoiek hizkuntza osatzen duten kontsonanteak baitira. Behin kontsonante hotsak aukeratuz gero, hitz berriak asmatzeko jatorrizko ereduetara itzultzen da. Hotsak eta edukiak elkarren tirria izan behar dute, euren arteko analogiak armonia izan dezaten. Hala *ama* eta *ume* hitzak M kontsonanteaz eratuak dira eta edukian elkarri lotuak dagoz, elkarren tirria dute. Arteko bokalen zeregina, zabaletik estura, kontsonantearen kantitatea neurtzea da, alderatzeko analogiak ohar dezan: *ama* handi eta *ume/ime* txiki zabal-handieran. Eredu zaharra, edo arketipoa, AMA nortasuna da ohargabea eta M kontsonantea ahozkeran.

Arketipo izenak giza ohargabearekin zerikusia du, *eredu zaharra* edo *jatorrizko hotsa* den aldetik eta Jung psikologoren terminologiatik hartuta dago. Izan ere, hizkuntza ahozkatua giza psikologiarekin bat eginda dago: aipatu adibidean, ikusi eta behingoan *amari* antza ematen diogu eta *umearenarekin* alderatzen eta bereizten. Sentzunean ikus-entzunak memorian gordetzen ditu eta, hitz egiterakoan, hitz ondo kordatuak, gereizak bezala, jasotzen dira barne otarretik. Hargatik hizkuntza argia eta garbia egin ahal izateko, arketipoen hotsak eta edukiak memorian ondo taxutu eta gorde behar dira.

1.2. Arketipoak, sinboloak eta mitoak

Arketipo bakoitza bere sinboloan oinarritzen da. Eskerrak sinbolo horri, beti daukagu begien aurrean eta euskara asmatu zuten arbasoek ez zuten arbelik behar izan asmatu eta asmatua ikasteko, nahikoa zuten izadira/kosmora so egin eta bertan ikus-irakurtea. Sinboloak gure sentzunei, begi-belarriei bederen, deika ari dira eta memoriako iruditeria inutzen dute.



Sinboloetan horrela, *zeru mako* ama da, eta izarñoak, bere umeak analogia batez, *UTU iduzkia* da, *AITA* nortasunaren sinboloa. Ohar *aita/ide* hitzen arteko analogia eta aldea kantitatean. Arketipo bion artean, mitoa deitutuako ipuina sortzen da: Utu Amaren inguru dabil goian zeru makoaren biran eta behean lurpetik hildakoen gerizatsuak



ikuskatzen eta zuzenbidea egiten. AMA+UTU> AMATU elkartzean, INU umea izan zuten zeruan eta LOI “lurra” hemen behean, mitoaren arabera. AMA+AITA > MA.AT>MAITE erlijioa izatera heldu zan uskomediterranearen kulturaren. Amak INUtzen du INU umea mitoaren ustez eta analogiaz, gizakia den seme-alaba zerutik LOI “lurra” ixuri uhinekin. Loian bizi garenok, ohar “loi/ahul/hil” andana hil hil egiten gara, ERRA “airea” falta izanez gero.

Hagatik bizi ahal izateko, amaren INU “uina” eta UTU “su” aitaren beroa ez da nahiko, ERRA aitorde edo heroiaren “airea”/arnasea ere beharrezko dugu eta LOI/lurreko ala elikarako. Ikusten denez aipatu lau arketipoak izadiko elementuak dira: ura, sua, airea eta lurra, eta elementuon jainko sortzaile, AN/INU, UTU, ERRA, eta ILU dira eta horrela idazten ziran arketipook lehengo idazkeran, monosilabo eta kontsonante soil.



1.3. Arketipoak eta giza zientzia

Historian ezagutzen den jakintza zaharrenak izadiaren lau elementuok ezagutu eta bereizten zituen, Sumerren bertan, Grezian baino bi mila urte lehenago. Beraz, hasierako ipuina, berez zientzia bilakatzen da eta euskara asmatu zutenek ba zekiten aldien aldiko zientziaz ustiatzen, izenak eta edukinak kordatzen zituztenean.

Hasiera baten gizakia kosmoko mugimenduari zeharo atxikia bizi zen, umea amaren gonari bezala, eta izadiko sinboloekin asmatu eta oratzen zituan hizkuntzarako hitz monosilaboak. Hosta-hosta bereizten zituen sorkari elementuak eta euren sortzaile ziren jainkoen nortasuna, bera ere elementu ohien senide bailitzan.

1.4. Arketipoen gizakundea hitzetan

Hala ere, gizakia, aldien esperientziaz, bere arazo eta kezka denak izendatzeko jainkoen izenak nahiko ez zirela konturatu zan eta giza barrura begira, barne bizitza eta asmamena idoro zituan. Jainkoak han eta gizakia hemen: gizakia beste mundu bat, gorputza eta arima zela konturatu zen. *Materia* KA deitu zuen eta horrela dager euskaran gaurdaino *kai>gai* eta koptoan *ka*, *giza soina edo haren ordekode den irudia*



eta *BA* baita *psike barnari* deitzeko, *ene ba!* / *ene bada!* esakeretan eta koptoan ere idazten den legez.

KA eta BA ezin dira bizi elkarrekin AS *arnas* barik. AS arketipoak bizirik mantentzen ditu eta AS gaberik, banandu egiten dira. “Zer da bizia? Arnasaz hartzea. Zer da hiltea? Arnasa galtzea?” herri jakinduriak ohartzen duen bezala. KA hiltean, Egiptoko mitografiaren arabera, BA hastapenari euskarria falta zaio, txoriari non koka ahal izateko adarra bezala, eta AS berriak noiz lehengoratuko begira dago. ILU/HIL heriotzaren aurka, AS giza duintasunari eta errituzko santutasunari dagokio Sumer eta Egiptoko sakratuaren idazkietan. Euskara, lehen hitz ahoskatua eta sumerera eta koptoa, lehen hizkuntza idatziekin, gonbaratzea eta adostea hizkuntzen jatorria bilatzeko ezinbesteko baliagarria da, euskararen jatorriak berekin dakartzalako kultura inguru bereko hizkuntzak.

Euskararen asmatzaileak halatan, jainkozko arketipoei erantzunez, goiak behakin elkarrizketatzeko prestatu ziran eta jainkozko arketipoei giza arketipoak erantztea gizakia jainkoekin ezkontzea bezala izan zen. Haraz gero, zeruan jainko familia nagusitzen zen eta lurtean giza familia, haren ondarea bezala. Horrela INU+KA > INKA/INKO egina zegoen INU gizatzen zelarik, edo INUK ondarea izan zuela adierazteko, AMAK > AMAKO “ama-alaba” ohi bezala, edo AINA+BA > NEBA bezala, UTU+BA > OSABA edo IZEBBA/IZEKO, AR+BA > ARREBA, edo ILU+BA > ILOBA. (Ikusten denez, familia izenak jainkoen egitura berekoak dira eta hizkuntza ahozkatuko lehen terminologia osatzen dute.

Berdin gertatzen da AS zazpigarren eta azken arketipoa erantztean: AS+AN > SAN egiten duela, (jainkoen titulutzat), AS+EDU > XEDU(S) “aingeru” XEDA “gidatu”, AS+AR > ZAHAR (gizaki adinduen titulutzat) edo AS+INKO > XAINKO > JAINKO, etab.

2. Aketipoak eta hiztegiaren hazkundera

Arketipoak izendegia nola eratzen eta ugaritzen duten jakiteko, bakoitzetik ariketa laburra egingo dugu, teoriez baino hareago adibidez aditzen emateko. Ariketa xumea den arren, edukietan liburu osoaren egitura du, bai banaketaz eta bai mamiaz.

2.1. AN / INU arketipoa

AMA arketipoa da psikologian eta M/N/Ñ kontsonantea ostera eta, geroago baten, idazkera mailan. *AMA/ume* bezala *AMA/aina*, *INU/iño nini mintzoa* adierazten, *INU/in* jainko ekintza aipatzen; amaren kalitateak *on*, *un*, *onu*, *eme*, bere lehentasuna *hona*, *man*, *men*, *mende*, berekiko kideasuna *ni*, *ene*, *mi*, *me*, *nor*, *noiz*, *nola*. Berari *ino* edo *inzini* egiteko *ene*, *aini*, *ená*, *iñó*, etab. inoak erabilten dira; bere emaitzak: *eman*, *mana*, *mama*, etab. Monosilaboak amaitzean, jainkozko arketipoak elkartzen dira, eta jainkoen familia osatuz gero, haien gizakundera, giza arketipoekiko ezkontza, hasten da, Ka>Ga, Ba>Pa>Fa, aS/aX/aZ atzizki lehengo eta gero aurrizki ere, sartzen direla.

Gizakundez *ain>gain/aina>gaina* datoz, *in>egin*, *un>gun*, *hona>kona*, *men>kemen*; *on>bon*, *ino>ipoin*, *aina>baina*, *men>menpe*, *man>women*; *eme>seme*; *üain >kane*, *üain>chien*, *aina>seina*, *hain>zein*, *hona>jaona>jaun*, etab.





2.2. UTU arketipoa

UTU AITA da arketipoz ohargabea eta T/D/TH/DH kontsonantearen ahoskera eta idazkera izan du. *UTU/edu* den bestean, *aita/ide* da haren ideko *idea* ematen digu eta bigarren pertsona ordezkaten: *tu/zu/you, su, hi/si* formak hartzen dituela eta *txo/tto* lagun egiten da; ekintzan *UTU/itu* dator, *to, otsi* emonkor da, *otu/otoi* toka egiten zaio, *ate* guztietatik *jo* doa, *haita* aldia markatzen, itxasoan *ito* egiten da, handik *itoi, su* bero, *ota* altu doa, *uso* hegalaria antzo, edo zuloetan zehar, *otso, idi, izi* ozartuak lez, eta *idoi, udi* zuloetatik *uda, eudia* ixuriten digu.

Bere gizakundean SUBE eta BUTZU sortzen ditu antxinako *aita/ama* gizatuen mitoa astinten duela, ("Mari eta Sugaar" euren artean) hitzok sumerion ere ba dagerz. UTU, eguneko bidelagun aparta, *ide>kide* eta *bide* egiten zaigula, vos urkolaguna bailitzan, eta analogiaz, berriz, *potto, dogo* bera, *juzo* zuzenaren adore. *Udi>dupa* dator, *otso>potzo, su>sopa, ota>toki* jasoa; *eda>xeda* dator, *haita>aste*, etab.

2.3. ERRA arketipoa

ERRA heroiaren arketipoa da ohargabea eta R/RR/Rh kontsonantearen ahoskera eta idazkera du. Zer egiten du berak zeru mako eta eguzkiaren artean? *Airea* ordezkatu eta ha den bizigarria oroitarazi. Beraz, *ERRA/erre* den bestean, mitologian *ERRA/errai* da, bere *herria erdi* duelako eta *ar* bezala, SUBE aipatua satanizatzen du, kulturen arteko aihergoagatik (Egipto Babiloniaren aurka, alegia); *eroi* den bestean *ero* da eta *Eroi/Erio* hizkunea egiten du eta grekoek *eroo* maite izan adierazteko darabilte.

Lotura asko ditu UTU arketipoarekin, hola *otzi/ortzi, ate/atari, otu/erran, otoi/arren, uso/urso, uro/toro, ar/ardi, edu/eredu, otsi/erosi*, etab.

Gramatikan hirugarren pertsona ordezkaten du, *er, era, hura, eurak*, erromanikoetan edo izan ezik. Berari arren egiteko *ara, aro, rau, aira, hurra* etab. orroak erabilten dira.

Gizakundez, GAR, jainko ezaguna Ainamendin eta Babilonian, *ar/bar* dator arameeran eta *arriba* euskaraz; *ara/area>ibar* dator, toki *behera* adierazten. Gizakundez "aro>azaro" dator, "ora>perro", han jainko zaina eta hemen gizakiena bereizten, "erdi>birth" dator euskeratik inglesera, "erdu>vertere" euskeratik latinera. Era berean, "ar>akar"



dator goiko arketipoa behe mailara jaiztean edo “ar>txarri”, menditar aberea “AS/X/etxe” duintasun labelaz bereiztean, hala “ardi>zerde”, “ekura>txakur”, “ekura>txekor” eta “abere>chevre” euskaratik frantserara, etab.

2.4. ILU/LOI arketipoa

ILU uiletan edo likinetan, leku loietan, datza, elaiak lez, lehotza lokatzez egiten duela eta lezoian aldizka loak eta albeak dago. Ahalean dagonean, oibentzako alea eta eleentzat ala lortzen du eta bere elikaz elikatzen gaitu. Legortean, ostera, ahuldu egiten da eta “old uldua” dirudi, euskaratik inglesera, eta hil egiten da. Bere aldia alte markatzen du eta haren oldea elez leihatzeke “ola, ale, ela, ely” alakaz elegiten zaio.

Giza familiakoek “Baal, loba, alaba, iloba/lioba” izenak hartzen dituzte eta “biloi>filiu” euskaratik latinera, edo “elahide>child” euskeratik inglesera; mitologiak badaezpadako jende nastuaren gurasotzat dauka arketipo hau, “lamia, ilalamia, lamastu”, etab. Abeleetan oilasko, luki, lupu, lemuri, lepore, legoi, lapa, lasun, “aldi>zaldi”, “abele>kabal” eta “abele>cheval” euskaratik frantserara, etab. Gramatikan hirugarren pertsona ordezkatzeko du, erromanikoetan bederen, ERRA/ILU arketipoak ordezkartzen aurkatzen direla.

2. Errittoa eta arketipoak

Asaben mundua teologiazko ikuspegia zan funtsean eta euren pentsamoldea jainkoen oroitzari josia zegoen eta urtero, guk egun batez bakoitzaren jaioteguna ospatzen dugun bezala, haiek hilebeteko jailadian jainkoen jaiotza eta, beraz, herriarena, ospatzen zuten, gaur bertan herriak “Inotean” bezala. “Inoteria” ospakizun zenaren hondakina baino ez da, baina ariari tiratuz zerbait baliagarri lor daiteke errittoa hoietatik. Ospakizun hori geroko kristau teologiaren lankide da, harekin bateratu doa edo aparte irauten du.

Kultura zaharrak, berria sortzean, arteko izenak erabilten ditu kultura berriko errittoa edo misterioak izendatzeko. INU jainkoaren jaiotza ospatu behar dela? Bada, INOTE “Inoren haita” edo aldia deitzen zaio halako ospakizunari edo ONONZARO formaz bereizten.

Errittoaren ospakizuna hasierako jainko ekintzari lotua dago, hots, herriaren jaiotzari: herriak nortasun idea bildu zuenetik eta batasuna egin, sinistez ere bat irauten du, hizkuntza ere lehengo oinarrien gainean hazten doala, jainko berri edo oinarritzko izen berrien sarradatik ate. Hasierako gomutari eskerrak, euskarak iraun ahal izan du, milaka urtetan, inguruko erromanikar hizkuntza landuen artean. Greziak eta Erromak inperioaren nausikeriaz, eta bereizkeriaz euren zerbitzurako jainko berriak asmatu zituzten eta euren hizkuntza ahozkatuak hanarteko oreka galdu zuen behin idazkira emanez gero, bere sendiko beste hizkuntza zaharragoak barbarotzat emanez.

3.1. Inote, Ononzaro

Babilonian ANU/ANUM jainkoaren jaiotza ospakizunari ANUMZARO deitzen zioten eta euskaldunak ONONZARO deitu izan diogu Gabonetako misteriori. Formaz “aro>azaro” gizatzen baita, jainkoen aldia eta gizakien aldia bereizteko. Jainko seme baten jaiotza da eta, analogia batez, izen zaharrak balio zuen “jainko berriaren” jaiotza adierazteko.



Berdin INOTE “INUren haita” aipatzen dugunean. Izena gelditzen zaigu behi- behin, nahiz eta kristau eraginez, Gabonetako Jaiotzatik bereziago doan. Herriak hasieran ez zuen muga hori ikusten, gero ausaz erritoen zehaztasun asko ausaz galduko ziran, Donostiako INOTEZ, adibidez, inudeek, nini inosoek besoetan eta unaiek unaitzako matoez egin eskariak edo abestiak bederen. Hala ere, errito hitzik ezean, erritoren izena INOTE eta anude/unaide eta unaitzaren kalejirako ekintzak gelditzen zaikigu, INUren AMA ohargabeko arketipoari ume/aume berrientzako mama eta herriarentzat mana eta mantenua eskatzen, uin, eñe, antxume, mahatz, eta gainerako emariak.



3.2. Jote, Subilaro

UTUren haita> “Jote” dator, Utuk, negua gaudituz, aintzina jote duela. “Jotea” tuta, turuta, turrutu ereskinaz jote zen eta ibilketara gonbidatzen, eta, aldi batez, joteak/jotak abestera, Nafarroan bezala. Mundakan “Turrutura” ere deitzen zaio ospakizun honi. Joaileak behinolako apaizen antzeko soinekoak jantzen dituzte, idi ixatzez egin isipua eskuan eta txilinteria gerrikoan daramatela, eriteko prestatzen diren alorretatik gorriña dakarketen moxorroak eta gaitzak aihenatzeko duten majja-eraginaz.

“Subilaro” neguko UTU>iduzki mugarekin lotua dator. UTU>su eta subil, subilduak ornitzen du iduzki indarra iduzki/jainko berriaren jaiotzan. Etxe barne gozamenerako zan eta suteak, begien aurreko suak ezitzen zuan asaben neguko otza.

3.3. Urte, Oronzaro

ORZI haita>“Urtze/Urte” bera da, izan ere, urt eta orzi eguzkiak egunero egiten duena da. ORUS grekoa bezala, ERRA jainkoaren seme zerutarra da eta haren seme Iruzki “eguzki” esateko beste deiera ere ba du euskarak. Urte “uren haita” da eta “urtu/urte” hizkuneak erro eta prozesu bereko egiten ditu. “Urte Berriz” hasten da Orzik agindu ur banaketako atea idekitze ordua da.

Lehen hamabi egunak zotalegunak dira eta egunotan susmatzen den eguraldia izango da urtean zeharreko hileetan ere. Ur sorta Urte guztirako sortea zen eta gaur bertan ere anteparetara begiratzen da, ea urtean zehar ahortarik-edo izando ote den bildurrez. Ur haita/Ur ate>“Urte” datoz erabatera. Urte Berriz umeez atez-ate “urtebarrikari” eskakizuna abesten zuten: “Urte Barri kari-kari/ daukanak ez daukanari/emotea sarri”



alde bateko urria besteen urruaz ornitzera deitzeko, “urru/urri” hontra hizkunea uretik bai-dator.

“Oronzaro” hitza Eguberri adierazteko ere erabili izan da, ORU/ORO denaren “orena” da eta, ospetsua izan haren izena koptoen inperioan

3.4. Elte, Olentzaro

Eta azkenik ILU/EL/AL haita>”Helte/Olde/Alte/Aldi” formen ekarriaz aurkezten zaigu laugarren arketipoa, aldien helduera adierazten, goietako itxaropenak loian/lurrean atanda hartu nahi bailuen. Gipuzkoa erdian eta Bizkaia aldean oraintsu arte ezezaguna edo galdua zan jainko honen ospakizuna eta non agertzen zaigun “Olentzaro” piura, lfar aldetiko Halloween eredura, “ahuldu/old” hizkuneak eskeintzen digun agurea. INU+EL>”Noel” bera da, baina jainkozko arketipoen lehentasunak aldatuaz, Noel formak lnu zeruari gara ematen diola eta Olen formak, ostera, lllu lurrari. Ba al du lurrak itxaropenik, edo zahartzaroak berjaiotzerik? Horra Halloween ospakizunaren gako iluna eta Olentzaroko farolaren aldea.

Jainkozko arketipoetan azkena (nahiz sumertarrek lluren jainkotasuna ukatu), jadanik kaleratu da eta haren mezu ezbaikorra abesten da ikastoletatik trabenetara, kristau elizako katekesiak ere “Jesus jaioa dela” mezuaz, gizaki zaharkituari itxaropen berria eskeintzen diola.

4. Santutegien lorratza

Hirugarren lekukoarekin osatzen omen da epaitegia, auzian juizio zuzenaz ebatzi ahal izateko. Euskararen arketipoak antzinako herrien jakinduriak ohartu eta berezi zituen izadiko elementuak dira: uhin, su, aire, loi monosilabotan emanak eta beste hainbeste jainko egileren izenak direla lehengo frogatzat.

Bigarren froga jainkoon seme-alaben jaiotze ospakizun erritualak aipatu ditugu lehengoekin adostuak.

Hirugarren froga jainko arketipoon santutegiak dira. Jainko santutegi jatorrak mendiak ziren eta hainbatean gaurdaino ere ba dira, bada urietako ziguratak eta piramideak edo geroagoko tenplo ederrek ez dute txikiagotzen edo baztertzen mendien gorentasuna. Izan ere lurra INU zero makoaren oinarri eta UTU iduzkiaren ATARI denetik >terra>eter>eder ere ba da eta Euskalerrria aberatza da santutegiotan eta euren izenak frogatzen dute, zein jainko arketipori eskeiniak diren.

Orriaga, Urkiola, Arrate, Ernio, Aralar, Uxue, etab. santutegiak kristau aurreko fededunen lorratzak jarraitzen dituzte. Urte Berri egunez, adibidez, askok Gorbea, Oiz, edo inguruko mendiren batera igoten dute, asaben ohiturari jarraiki, eta Jainkoari urteko uren zotalegunak edo gainerako mesedeak egiztatzeko egiunea berriztatzearen. Han sua biztu, mokaua jan eta “legea egin dogu” esanez etxera itzuli, etxearen onurarako etxeak agindua bete bailuen.



5. Arketipoak eta mendien izenak

Mendien izenak dira hirugarren lekukoa “euskararen eta hizkuntzen jatorria” dugun auzi honetan. Mendi/Monte bereizten dira euskara/erromanikoan, euskarak lehentasuna ematen diola jainkozko arketipoari eta erderak “monte” mendiari. Batean AINAmendi bada, bestean MontAINE da, euskarak OTAmendi, erderak MontOTA alderantziz josten dutela nortasun agiria. Erderak ez zuan ulertu euskararen mezua, grekoak eta latinak euren azpiegiturako hizkuntzena ere ulertu ez zuen bezala. Euskarak jainko arketipoen nortasuna eta muina gordetzen duela, erderak adjetibo baloretan ezabatzen, ostera, izenon arteko nortasuna.

5.1. ANU/INU santutegiak

Urartiarrek INU deitzen zioten jainkoari eta behe aldameneko hurritek, berriz ENI. Mesopotamia goieneko herrion hizkuntzak gramatikan ere ergatiboa gordetzen zuten, euskararen antzera. Bizirik balira, euskararekin gonbaratuz, uza ederra ekar zezaketen, gure alorrera, baina, ulertuen ustez, beste kulturen sarradekin, itxurgatu diraue kaukasiar hizkuntzok. Sumertarren ustez, ANUk mendi gainera sortu zuen “buru beltzen” askazia.

Euskaldunek mendirik jasoena opa izan zizkioten INU/ENI “zeru” jainkoari eta horrela Ainamendi/Montagne, Ainomendi/Montaño deitzen diegu Pirineoak mendiei. Orobat, Aniemendi/Muntanya, Inmendia/Montin, Onamendi/Monton, Unamendi/Montuna, Mamendi/Montema, Mimendi/Montemia, etab. Mendiaren egiturara egindako Ur uriko ziguratak ere “Eanna” izena zuan eta Inanna jainkosaren omenez jaso izan zan.


5.2. UTU santutegiak

Urtean zehar mendi bereziek eguzki itoitze/ostea markatzen dute. Haietxek dira eguzkizaleek euren otoitzerako begikoenak: hala Otoiomendi/Montoto, Itxumendi/Montijo, Itxumendi/Menditxu, Udamendi/Mondado, Idamendi/Montida, Diamond/Montedía, Atamendi/Mondata, Isumendi/Mendisú, Asumendi/Monteso, Osmond/Montoso, Azumendi/Montezo, etab. Kretako Idamendi santutegian Zeuz eguzki jainkoa ospatua izan zan.

5.3. ERRA/ORU santutegiak

ERRA formak “aire” ordezkaten du eta bere sinboloa “eguzki begia” da eta ORU izenak “eguzki begiko behea” adierazten du edo iruzkiaren urt eta orzi unak seinatzen. Ainamendin ba dago 2.017 m. gorako mendi bat Orimendi deritzaiona eta erderaz Montori da edo Oriamendi/Montoria. Oruse/Orzi forma historikoak eta arketipo bikoitzdunak ere ba dute tokirik: Orusemendi/Montrose gurean eta Eskozian, Orzimendi/Montorzi gurean eta Italian. Erramendi/Monterré, Arramendi/Montarra, Aramendi/Montara, Arimendi/Montari, Oromendi/Montoro, Orromendi/Montorre, Urremendi/Mondurre, Urmendi/Montur, Iramendi/Montira, Irumendi/Montiro, etab.





5.4. ILU/EL santutegiak

Arketipo honeri eskeini mendiak apalak dira eta ILU jainkaok bezala, ibaiondoko edo itxas egaleko uil tokiak maite ditu. Horrela Uliamendi/Montoliu, Elomendi/Montelo, Lumentxa/Mendelu, Ilamendi/Mendail, Lamendia/Montilla, Almonte/Mondal, etab.

6. Ondorioak

Arketipoak euskararen sortze eta burutzean duten eragina ikustean, geure asaben pentsamoldearekin topo egin dugu. Euskara egiten duguino nolabait eurekin elkarrizketatzen dugu. Eskerrak arketipoei euren euskara geurea dugu, ez ginen eurenagandik asko aldenduko, eredu berdinak jarraituz, forma berdintsuak sortzen ditugulako.

Esanekoek eta bi gelditzen dira oraindino, arketipoez esateko: euren aurrizki atzizki jokua bederen, izenak sortzean eta gero gramatikarako zerbitzua egiteko duten prestakera, etab., baina guzti hori "Origen de Vascuence" liburuan aurki dezakezue.

